

2021-02-12 / 680. ZENBAKIA / 17. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM




Aurtengo inauterietan faltan botako ditugun ekitaldiak: Txarangak, lagunarteko bazkariak... / 2-7



Imanol Iribarren musikariari elkarrizketa, Andoaingo saioaren bezperan / 6



Elena Diez Urnietako Topatu taldeko inauterizaleari elkarrizketa / 2



Ana Jandula Andoaingo Keinu dendako nagusiari elkarrizketa / 7



Bizipozari eusteko gogoa, etxe barruan bada ere

Gizarte mailako hitzordu guztiak bezalaxe, inauteriak ere ez ohikoak izango dira / 2-7



430
231

↑ ↑ ↑

Trasteleku eta biltegi txikien alokairua Urnietan


Merkatuko preziorik onenak bermatzen ditugu!

barnE

TRASTELEKUAK MP BATETIK AURRERA ENPRESENTZAKO BILTEGI HANDIAGOAK ALTZARI-GORDELEKUAK

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA
Bulegoa: Muebles Iturbe
barne.eus



Elena Diez urnietarra. AIURRI

“Sormenerako bidea ematen du inauteriak”

ELENA DIEZ URNIETAKO TOPATU TALDEKO INAUTERIZALEA

Tolosako ostegun gizona edo Iturengo joaldunak bezainbesteko sona izan ez arren, azken urteetan, indarra hartu dute Urnietako inauteriek

tekatzen ditugu, elkarri lagun-tzeko.

Zeren arabera aukeratzen duzue mozorroa?

Jai Batzordeak erabakitzen du gaia, eta gu horren arabera mozzoratzen gara. Joan den urtean, esaterako, zirkua izan zen gaia eta gu The Greatest Showman pelikulaz mozzorrotu ginen. Urtero, herrian adostutako gaiara batzen gara. Urtetik urtera indarra hartzen ari da taldea, batzen ari da jendea gurera. Esaterako, Salestarrek iragan urteko festa herrian bertan egitea lortu genuen. Eguraldiak ere asko baldintzatzen du jaia; interesgarria litzateke leku bat izatea festa gauzatzeko.

Zenbat denbora lehenago hasi ohi zarete dena prestatzen?

Gabon partean prestatzen dut nik koreografia, gutxi gorabehera, une horretan zehazten baitugu zertaz mozzorrotuko garen. Urtea ekitearekin batera hasten gara entseguekin; lehen, udalak uzten zigun lokala, baina, tramite-kontuak medio, alde batera utzi genuen aukera hori. Mikel Francoren Wutaoh aretoan elkartzen gara, zeren bera baita musikaz arduratzen dena. Pakik, aldiz, atrezzoak egiten du, karroza, gehigarriak. Igande arratsetan biltzen gara lokalean, harik eta inauteriak iritsi arte. Ba-

tzueta beste hainbatetan baino hobeto gelditzen da azken emaitza. Alabaina, ondo pasatzea da gakoa.

Oso inauterizalea al zara?

Oso gustuko dut. Sormenerako bidea ematen dute mozzorroek, inauteriak. Eta oso gustuko dut nik hori. Ikuskizuna prestatu ez ezik, polita da lagunak egiten dituzulako. Hainbat kuadrilla biltzen gara bertan. Oso ondo pasatzen dugu guzitik batera. Jendea ezagutzen duzu, eta elkarrengandik ezberdinak izan arren, elkar ondo ulertzen dugu. Azkenean, kuadrilletatik at dagoen taldea sortu dugu, eta inauterietako larunbata batera igarotzen dugu.

Jende askoren festarako azken aitzakia izan ziren iragan urteko inauteriak. Izan ere, jarraian etorri

zen pandemia. Ondorioz, aurtengoak, oso bestelakoak izango dira.

Aurten, bertan behera gelditu dira. Pena handiz hartu dugu albistea. Gainera, pentsatuta genuen ideiarekin bat edo beste. kalera ateraz gero, nik uste dut jendea mozzorrotuta irtengo dela. Egoeraren arabera zerbait inprobisatua egingo dugu.

Zer da gehien botako duzuna faltan?

Batez ere, entseguak bota ditut faltan. Aurten ez gara bildu. Ez dira bakarrik inauteriak, festa egun horiek dakartena ere faltan botako dut. Aurten hori ez da posible izango beste hainbat gauza lez, baina beno, garrantzitsua da jendea animatzea. Garrantzitsua da herrian bizia egotea, gauzak antolatzea, ez izateko askok dioten bezala, “lo egiteko herria”.

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Inauteri jaien larunbatean egun osoko egitarauaz gozatzeko aukera izan ohi dute herritarrek, hainbat talderen ekimenak medio. Topatu taldekoka da Elena Diez.

Zer dela eta hasi zineten Urnietako inauterietan ikuskizunak muntatzen?

Nire etxean senarragatik ekin genion mozzorrotzeari. Izan ere, bizikletatik erori berritan zen eta errehabilitazioan zegoen. Hala, inauterietan mozzorrotuta joateko eskatu zioten. Horrelaxe hasi zen guztia: 2007. urtea zen, eta Shrek pelikula atera berritan zen. Lau gauza hartu nituen etxetik eta Fionaz, pelikulako printzesaz, mozzorrotu nuen. Oso ondo gelditu zen. Hori dela eta, eskolako festara Shrek pertsonaiak mozzorrotuta joan nintzen, bainu-txanoa buruan eta kuxina tripan. Horiek horrela, hurrengo urtean, ea zertaz joateko asmoa genuen galdegin ziguten

askok. Ondorioz, urtero-urtero hasi ginen mozzorrotzen. Kuadrilla bildu ginen eta mozzorrotzea ez ezik koreografiak egitea ere ideia ona zela pentsatu genuen. Urte batean Grease pelikulaz mozzorrotu ginen, beste batean Drag queen-ez...

Ohitura bilakatu da orain behin inertziaz hasi zena.

Hasiera batean kuadrillan egiten genuen. Baina urte batean Paqui Navasekin elkartu nintzen, eta Michael Jacksonen Thiller bideoak muntatu genuen. Urte horretan jende asko atera zen gurekin dantzatzera: hogeiki detik gora bildu ginen, helduak zein haurrak. Ondorioz, taldea sortu genuen eta askotariko kuadrilletako jendeak hartzen du parte. Urtero, zertaz mozzorrotuko garen pentsatzen dugu, eta nork bere jantziak egiten ditu. Oro har, ez dira erosten, eta biltzen garenean ideiak par-

"TALDEKIDEAK ELKARRENGANDIK EZBERDINAK IZAN ARREN, ELKAR ONDO ULERTZEN DUGU"



2018ko inauterietan Drag queen ikusgarriak hurbildu ziren Urnietara. AIURRI



2017ko inauterietan animaliz osaturiko konpartsak herrikide askoren arreta bereganatu zuen. AIURRI



Maila handiko mozorroak eta osagarriak ikusteko aukera dago Urnietako inauterietan. AIURRI



Festazaleak ez dira falta Urnietan, ezta inauterizaleak ere. Argazkian, hutsik egiten ez duten inauterizale horietakoak. AIURRI

Faltan botako ditugun hitzorduak



Udal pilotalekuan elkartzen ziren bazkarirako. AIURRI

Poxta Zahar gazte koadrilen bazkaria Eguerdian hasita, gazteek egun osoko ospakizuna egiten zuten. Poteoa eta gero, bazkaria antolatzen zuten Udal pilotalekuan. Sagardo kupelaz lagunduta. Koadrila ezberdinak elkartzeko aukera bikaina zen.



Bosko Anitz taldeko kideak San Juan plazan. AIURRI

Bosko Anitz txaranga Ikastetxetik iristen ziren txaranga doinuak herrigunera, San Juan plazarako bidea musika eginez egiten baitzuten. Herriko plazan festazaleekin elkartu eta Idiazabal kalera jaisten ziren, herriko kalejirari ekiteko.

1. saria. Leiho edo baikei beldurgarriagoa
2. saria. Taldekako edo banakako bideo ikaragarriagoa
3. saria. Banakako edo taldekako argazkia mozorrorik beldurgarrienarekin

Bideoak edo argazkiak etxeberrikojaia@gmail.com helbidera bidaliko dira edo Facebookeko edo Instagrameko profiletara. Sare sozialetan argitaratuko dira

URNIETAR GUZTIEK PARTE HARTU ANAL IZANGO DUTE
ARGAZKIAK EDO BIDEOAK BIDALTZEKO AZKEN EGUNA: OTSAILAK 15
TRABAZLEAK OTSAILAREN 16AN JAKINARAZIKO DIRA

Antolatzaileak: Etxeberri Plazako Auzokideen Elkartea - Urnietako Udala





Inauteriak etxean ospatu behar dituzu?

Etxean mozorrotu eta bidali argazkia Aiurrira:

619 163 537



Sariak:

BABEXA, HIRU eta OLLOKI
taberna-jatetxetako
menuak, etxean jateko.

- **Otsailak 11, 12, 13:**
Argazkiak bidali.
- **Otsailak 14:**
Irabazleen
berri emango
dugu.



Urrutitik begira eta Koronabirusa zirudien. Gerturatu eta itsas azpiko korala zen. Mozorro ikusgarrienetakoa izan zen. **AIURRI**

Etenaldia, indar berezia hartzen ari zenean

2020ko azken ospakizun handia inauterietakoa izan zen. Giroan bazegoen Koronabirusa, baina oraindik urruneko gaia zirudien. Egun gutxira iritsi zen pandemia, konfinamendua eta gizarte bizitza errotik aldatu duen osasun alarma egoera



ONDARRETA

Ondarreta ikastetxean Kalderero festa

Ondarreta ikastetxeak ez du hutsik egin nahi izan eta otsailaren 5ean Kaldereroen ospakizuna biziberritu zuten, ikastetxeko jolastoki estalira mugatu arren.

Aurreko urteetan, ostiralean eta larunbatean ohikoa zen kaldereroak Andoainen ikustea. Datorren urtean itzuliko dira.



Herrikide askoren txaloak eta hitz onak jaso zituzten argazkian ageri diren kuadrilako kideek. Mozorroa bikaina zen. AIURRI



Irudimenean ez du parekorik. AIURRI



Banaka, familian, kuadrilan, talde handian... festarako hamaika aukera dago. AIURRI



Larunbat arratsaldean kaleak festazalez eta ikuslez betetzen dira. Iluntzean jendetza elkartzen da, Goikoplazan. AIURRI

Faltan botako ditugun hitzorduak



Olagain txistulari taldea eta Kantu Kalejirako kideak, elkarrekin. AIURRI

Txistulariak eta Kantu kalejira, Ostegun Gizenean Gaztelutxo tabernaren barnealdera begira jarrita, iraganeko irudia dirudi. Eta urtea besterik ez da igaro, gizarte bizitza erabat aldatu zenetik. Ostegun Gizenean giro polita jarri ohi zuten musikariek eta kantariek.



Gora Kaletxiki Band. AIURRI

Txaranga doinuak, kalez kale Inauteriak nekez uler daitezke txaranga doinurik gabe. Ezinbesteko osagaia da, kaleari eta jendarteari alaitasuna ematen diona. Aurtengoan Gora Kaletxiki Bandaren emanaldirik gabe geratuko gara.



Gazte koadrila buruhandiekin batera. AIURRI

Erraldoi eta Buruhandien konpartsa laz kalejira dotorea egin zuten. Erraldoiak, gainera, inauteri giroko elementuekin apaindu zituzten. Txikien eta gaztetxoaren arreta piztu ohi du Andoaingo konpartsak.

Xabier Lasa ANDOAIN

Imanol Iribarren tronboi eta piano jole andoaindarrak Aldapeko Basque Latin Jazz izeneko taldea osatu berri du. Abesti sorta konposatu du dagoeneko, eta Euskal Herrian, Andoainen bere jaioterrian eskainiko du lehenbiziko kontzertua zuzenean. **Zure proiektu pertsonalaren emaitza da taldea. Definituko zenuke zer musika mota jorratzen duen taldeak?**

Euskal tradizioetik datozkigun doinuak oinarri izanda, erritmo latino eta jazzeko armoniak erabiltzen ditut, nolabaiteko fusioa egiteko. Nire gogoari kasu egin diot hiru inspirazio iturri hartuz: euskal tradizioa, jazz eta erritmo latino. Musikari gisa daukadan nortasuna proiektu honetan definituta geratzen da, eta harro nago musikagintzan hartu dudana bideagatik.

Esango nuke hiru musika generoen jarraitzaileak asetzeko modukoa dela abesti sorta. Euskal herritarrari berehalakoan mugituko dizkiote barruak, eta ziur nago gozatuko duela jazzaren eta latinoaren ukituekin hartzen duten aire berriarekin. Bestalde, jazz zaleak eta latinoen zaleak ere identifikatu egingo dira; euskal doinuekiko interesa piztuko zaie, edota lehendik ezagutzen badute ere harekiko zeukaten kontzeptua aldatzen hasiko dira.

Basteron eskainiko duzun kontzertua deskribatuko zenuke?

Dagoeneko 12 bat pieza sortu ditut, eta ordu eta laurden edo ordu eta erdiko iraupena eduki dezake kontzertuak. Bizia izango da, doinu dantzagarriez betetakoa. Aproposa, esate baterako, inauterien boladarako, nahiz eta festa giroa galarazita eduki pandemia dela-eta; erreperitorioko abestietako bat Tolosako habaneraren aldaketa bat da, beste bat, berriz, kalejira girokoa...

Taldearen izenak izango du zerkusua bultzatu nahi duzun fusioaren kontzeptuarekin.

Hasteko eta behin, Aldapeko hitzak euskal abesti klasiko bati ("Aldapeko sagarraren...") egiten dio erreferentzia. Basque, Latin eta Jazz segidako hitzak erantsiz gero, mezua argi definitua geratzen da: hiru musika genero unibertsalen arteko nahasketa egin nahi duela taldeak, alegia. Bide batez, eta umiltasunez esanda, iruditzen

"Euskal doinuak jazz eta latino estiloekin nahastu ditugu"

IMANOL IRIBARREN ANDOAINGO MUSIKARIA

Aldapeko Basque Latin Jazz taldearekin batera, kontzertua eskainiko du ostiral honetan Bastero Kulturgunean. Festa eta dantza doinuak nagusituko dira



Imanol Iribarren, Bastero plazan. AIURRI

zait musika hau baliagarri gerta dakigula beharbada kanpoan horren ezagunak ez diren euskal doinuak gehiago nazioarteko- tzeke eta ezagutzera emateko; eta aldi berean, erakusteko posible dela euskal doinu horiek

"EUSKAL DOINUEN MOLDAKETAK DIRA, ETA ERA BEREAN HUTSETIK HASITAKO SORMEN LANA"

jazzarekin eta erritmo latinoekin nahastea.

Euskal Herrian oso gutxi jorratu den bidetik zoazela esan daiteke? Ez daukat horren kontzientziarik; nire intentzioa ez da gauza berritzailea sortzea. Gogoan naizkan bi gauza egin ditut: taldearen osaketa zein abesti sortaren sorkuntza. Onak izan dira orain arte jaso ditudan kritikak, eta alde horretatik, pozez zoratzen nago.

Euskal tradizioko doinuak dituzu oinarri. Zenbat dago sormenetik?

Euskal doinuen moldaketak dira, hori egia da, baina aldi berean, zerotik hasitako sormen lana da, eta alde horretatik, zuzenean eskainiko dugun erreperitorioa konposaketa berriei osatuta dagoela direla esango nuke.

"EUSKAL DOINUAK JAZZAREKIN ETA ERRITMO LATINOekin UZTARTZEA POSIBLE DA"

Nondik nora sortu zenuen taldea?

2017an Holandara masterra ikas- tera joan nintzen; berez, tronboiarekin jazza jorratzera joan nintzen, baina han, biziki erakarri ninduen unibertsitatean bertan topatu nuen musika latinoari buruzko sailak, Kubako erritmo latinoek batez ere. Era horretan, hasierako planteamendua pixka bat baztertu, eta ikasketak tronboiaren eta pianoaren artean banatu nituen. Azkenean, tesina, euskal musika tradizio- nala latin erritmoekin eta jazz armoniekin nahasteari buruzko ikerketa bilakatu zen. Ikerketa idazteaz gain, bi kontzertuek ere osatu zuten tesinaren aurkezpena 2019an; horretarako, doinuak sortu eta taldea osatu nuen, musikari honi eta hari deituta. Kontzertuetan entzuleek izugarri gozatu zuten, nahiz eta euskal tradizioaren aditzerik ez eduki. Geroztik, Andoainen, lehenbiziko aldia izango da elkartzen garela kontzertua eskaintzeko. Zaila egin zait zortzi musikariak batzea, are gehiago pandemiak jotako garaian; bost Euskal Herrikoak gara, bi Valentziakoak eta bat Madrilekoa. Oso musikari onak dira guztiak, musika ikasketak egindakoak eta instrumentu jole bikainak. Datozen egunetan, bi kontzertu emango ditugu (Hondarribian bigarrena), eta aldi berean, Elkar diskoetxean sartuko gara diskoa grabatzeko.

Zuzenean arituko diren musikariak

Aldapeko Basque Latin:

- Imanol Iribarren: Pianoa.
- Patricia Mancheño: Baxua.
- Manu Pinzón: Bateria.
- Eva Catalá: Kongak.
- Peio Irigoien: Txistua, Tronpeta, Dultzaina.
- Asier Ardaiz: Tronpeta.
- Alvaro Jarauta: Tronboia.
- Iñigo Corao: Tronboia.

Bastero Kulturgunean:

Otsailak 12an, ostirala.
19:00, 12 euro.

Instagram kontua:

Aldapeko_basquelatinjazz

"Erakusleihoan txilabak jartzeak ez zuen zentzurik"

ANA JANDULA KEINU DENDA

Eguberriak, Santa Eskea, Inauteriak, Santakruzak, Sanjuanak... urte osoko ospakizunen inguruan egiten dute lanik gehien. Bistan da pandemiak gogor zigortu duela negozioa



Ana Jandula Keinuu dendako nagusia da. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Inauteriak gaineen daude, txilabak saltzeko garai aproposa zuentzat. Bestelakoa da, ordea, errealitate gordina.

Ospakizunen bueltan egiten dugun lan guztia bertan behera geratu da. Inauteriak, Santakruzak... sasoi honetan txilabak salgai jartzen genituen, baina aurtengoan erakusleihora ere ez ditut atera. Ospakizunik egongo ez denez, ez zuen zentzurik. Tolosako inauteriei begira, hango txaranga eta elkarte ezberdinetarako bordatuak egiten genituen. Maila apalagoan bazen ere, Donostiako inauterietarako ere lantxoak egiten genituen. Baina aurten ez da horrelakorik izan. Zuen bolada txarra atzetik dator, Eguberrietatik eta Santa Ageda

bezperatik. Bi ospakizun horiek ere ez baitira antolatu. Galera handia zuentzat, ezta?

Bai. Gabonetakoa, gainera, oso arraroa izan da. Ikastetxe batzutan Gabonak ospatu ziren eta ikastolan, aldiz, ez. Santa Agedarako, ordea, ikastolak ospakizuna egitea erabaki zuen eta horren ondorioz dendan salmenta handiagoa nabaritu genuen. Gabonetako salmenta, aurreko urteekin alderatuta, penagarria izan da.

"PASA BERRI DIREN GABONETAN SALMENTA TXUKUNA EGIN AHAL IZAN DUGU MUXUKOEI ESKER"

Zenbat urte dira denda zabaldu zenuela?

Zortzigarren urtea betetzera goaz.

Hauxe izan da zuentzat garairik zailena ibilbide osoan, ezta?

Zalantzarik gabe. Santakruzak, Sanjuanak, Sanpedroak... Gabonekin batera uda lan handiko garai da guretzat. Bestalde, txapel ugari bordatzen ditugu mus txapelketetarako, ezkontzetarako. Eta hilabeteak dira ez direla txapelketak egiten, ezta ezkontzarik ere. Eta Keinun txapel ugari bordatzen ditugu.

Inauterietan txilabak saltzen dira, ez Tolosan bezainbeste. Baina Andoainen ere badago ohitura hori.

Iaz, esaterako, txilaba asko ikusi genituen.

Halaxe da, bai.

Zein da hurrengo hilabeteetarako egiten duzun aurrakuspena? Aldi baterako erregulazioaren aukera aztertzen ari zarete?

Ez. Pixkanaka-pixkanaka krisiari iskin egiten ari gara. Muxukoen salmenta, eta orain tabernak irekitzen hasiko direla ikusita, lanerako arropa mugitzen hasiko dela espero dugu. **Ostalaritza itxita izateak kalte osagarria eragin dizue?**

Bai. Donostiako denda batentzat bordatze lanak egiten ditugu, eta ostalaritzarako enkargu asko jasotzen ditugu haren aldetik: Poloak, amantalak... Orain eskaera berri bat jaso dugu, Mizpiradi sagardotegitik.

Pixkanaka aurrera egiteko adina da.

Erakunde ezberdinetatik etorritako laguntzak ongietorriak izango dira.

Bai, baina laguntza gutxi izan dugu. Andoingo Udalak emango duenaren zain gaude, baina bestelakoan ez dugu gauza handirik espero.

Egoera arintzea izango da, zuen aukera bakarra.

Bai, eta uste dut egoera arintzen denean gauzak hobetuko direla. Jendearengan gogoia nabari da. Ostalaritza irekitzeko aukera entzute hutsarekin, jendeak terrazan bazkaltzeko aukera baliatuko du. Bestelakoan, ostalaritza ixtean Kale Nagusian asko antzematen da. Eguraldi txarrarekin, gainera, ez da ia inor ibiltzen. Larunbatero irekitzen dut, eta aurreko larunbat goizean ez zen inor dendara sartzen. Tabernak irekita baldin badaude, mugimendua handituko da eta beste poz bat nabaritzen hasiko gara.

Muxukoen edo maskarilen salmentaren aldeko apustua garrantzia handikoa izan da zuentzat.

Hasiera batean ez genuen buruan eskaintza hori egitea. Eskaera bat egin ziguten frutadenda batetik, eta hortik aurrera muxukoa izan da gehien saldu duguna. Eskaintza zabaldu genuen eta inguruan ez zeuden Expresion markakoak ekarri genituen, eta horri esker Gabonetako salmenta txukundu ahal izan dugu.

Udaberri aldean iaz baino hobeto egotea da saltzaileen desioa.

Santakruzak ospatuko ez diren arren, ea udan egoera hobean gauden. Esan dezagun egoera zail honetatik irteteko gutxiago geratzen dela.



Mozorro festa, Kaleberrian. AIURRI

Argazki lehiaketa abian jarri du Aiurrik

Mekanika erraza da: Etxean mozorrotu, argazkia bidali eta etxerako jatorduen zozketan parte hartu

Erredakzioa ANDOAIN

Bizipozari eutsi beharra dago, garai zail hauetan. Inguruan asko eta asko dira inauterizaleak. Pandemia garaian, inauteri festa etxean egiteko beste aukerarik ez dago.

Jai alternatiboa egitea pentsatzen ari diren horiei begira, Aiurrik lehiaketa abiarazi du. Mekanika erraza da: Etxe barruan mozorrotu, argazkia bidali eta etxean jateko hiru jatordu ezberdinen zozketan parte hartuko duzu. Zeren zain zaude, inauterizale?

Inauteriak etxean ospatu behar dituzu?

- Etxean mozorrotu eta bidali argazkia Aiurrira whatsapppe: 619 163 537.
- Otsailak 11, 12 edo 13: Argazkia bidali.
- Otsailak 14: Irabazleen berri emango dugu.
- Sariak: 3 jatordu ezberdin.

Etxera eramateko sariak, eta sari-emaileak

- Babexa: Etxera eramateko pizzak.
- Hiru jatetxea: Oilasko errea, entsalada epela eta kroketak.
- Oloki taberna: Oilasko errea patatekin, eta entsalada mistoa.



Andoaingo Anbulatorioa, duela egun gutxi ateratako argazkian. AIURRI



Urnietako Anbulatorioa, duela egun gutxi ateratako argazkian. AIURRI

Eremu gorritik kanpo jarraitzeko aukerak daude bi udalerrietan

Andoain eta Urnieta eremu gorritik kanpo egon daitezke astearen amaieran, azken egunetako joerak nabarmen okertzen ez badira. Andoain argiagoa da joera ona; Urnietan, aldiz, zuhurtzia gehiagorekin jokatu behar da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

COVID-19aren azken joerekin, intzidentzia tasa metatuaren eboluzioa jarraitzea interes handiko jardura bilakatu da. Joera horren jarraipena egiten duen horietakoa Urko Vallejo da, zeinak Excelleko taula baten

bitartez hurrengo egunetako joera aurreikusten ahalegintzen den. Datozen egunetarako, datuak eskuan, hauxe bere hausnarke-ta: "Ia ziurtzat jo daiteke Andoain zonalde gorritik kanpo izango dela, egun hauetan. Urnietaren kasuan, azkeneko egunetako

joera ikusita, nahiko posible dirudi aste honetan zehar zonalde gorritik ateratzea, baina ezin da ziurtzat hartu. Urnietari gerta dakiok ere asteazkenean zonalde gorritik ateratzea, eta ostegunean berriro zonalde gorri sartzea. Urnietaren kasuan,

kontutan hartu behar da, biztanle gutxiago dituela, eta nahikoa da COVID19-a etxe batean sartu, eta bertan gerta daitezkeen 3-4 kutsaturekin udalerri osoa zonalde gorri eramatea. Andoain, hori zailagoa da".

Andoain

Urko Vallejoren ustez, egoera nabarmen bideratuta dago: "Otsailaren 10ean eta 11n, 28 kutsatu edo gehiago izan behar-ko genituzke zonalde gorri itzultzeko. Eta aurrekariak diote hori oso gutxitan gertatu dela. 2020ko urriaren 27an eta 28an 29 kutsaturen berri eman zuten, eta azaroaren 3an eta 4an 32. Garai hartan intzidentzia tasa metatua oso altua zen, eta joera kaxkarra. Gaur egun ditugun datuekin eta azken aldiko joera kontutan hartuta, ia ziurtzat jo daiteke ez garelako zonalde gorrian

sartuko ondorengo laupabost egunetan".

Urnietan

Urnietaren kasuan, zuhurtzia gehiago behar da: "Otsailaren 10ean eta 11n argitaratuko diren datuekin, 3 kutsatu edo gutxiago izan beharko genituzke zonalde gorritik ateratzeko. Azken sei egunetan behin bakarrik gertatu da bi egunetako baturak 3 kutsatu baino gehiago ematea. Hortaz, nahiko posible dirudi hurrengo egunetan zonalde gorritik kanpo egotea, baina ezin da, inolaz ere, ziurtzat hartu".

IA ZIURTZAT EMAN DAITEKE ANDOAIN EZ DELA EREMU GORRIAN SARTUKO, DATOZEN EGUNETAN

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebez etxeko harpidetza-sistema.
Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da.
Urnietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbina Ugarteandia.
idezkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaileak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ERROITZ** ERROITZ MUNDATIA

ALIATUAK: **INSTITUTO** **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOINGO UDALA

Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berlitasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIA: **Bikam**

BABESLEAK:
Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

Ostalaritzaren epaiak hautsak harrotu ditu

Eusko Jaurlaritzak ez dator bat Euskadiko Auzitegi Gorenak ostalaritza irekitzeko hartu duen erabakiarekin. Bien bitartean, Andoain eta Urnieta eremu gorritik irten dira. Eta Jaurlaritzaren dekretuaren arabera, ostalaritza zabaldu daiteke bi udalerrietan

Erredakzioa ANDOAIN

Euskadiko Ostalaritza Elkartetik itxaropenerako leihoa zabalik bazegoen ere, astearte eguerdian ezustekoa eman zuen Euskadiko Auzitegi Gorenak. Behin behineko epaian ostalaritza guneak irekitzea eskatu baitzuen. Asteartez geroztik, eta erabakia irmoa izan arte, tabernak zabaldu daitezkeela erabaki dute epai-leek. Beti ere indarrean dauden segurtasun, distantzia eta prebentzio neurri guztiak hartuta.

Asteazken goizean hainbat taberna zabalik zeuden Andoain. Besteak beste, Zumea plazako Danena eta Muga edota Zumea kaleko Gaztelutxo. Aiurri ostalarien ordezkariekin jarri zen harremanetan, eta gehienek ostegunean eta ostiralean irekitzeko erabakia hartu zuten. Andoain, gainera, eremu gorritik irten da. Eta Eusko Jaurlaritzak araudiari jarraituz gero, tabernak ireki daitezke.

Eusko Jaurlaritzaren erreakzioa azkar batean iritsi zen. Bingen Zupiria bozeramailearen adierazpenak argiak izan ziren: Eusko Jaurlaritzak errespetatu egiten du erabakia, baina ez dator bat EAEko Auzitegi Nagusiak emandako ebazpenarekin: "Ebazpen horrek ahuldu egiten ditu Eusko Jaurlaritzak gaur egungo



Gaztelutxo tabernak asteazken goizean zabaldu zituen ateak. AIURRI


egoera zail eta ahulean osasuna zaintzeko dituen tresnak". Zerbitzu juridikoek EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpena aztertuko dutela erantsi zuen.

Gotzone Sagardui Osasun Sailburuak, bestalde, erantzukizun indibiduala eta kolektiboa eska-

tu zuen: "Egindako ahalegin guztia alferrikakoa izan daiteke beharrezko babes neurriak mantentzen ez baditugu". Gainera, osasun sistemaren gaineko presioak hobera egiten denbora gehiago beharko duela azpimarratu zuen.

**EUSKADIKO
AUZITEGI
GORENAREN
EBAZPENA BEHIN
BEHINEKOA DA**

**EUSKO JAURLARITZAK
ERRESPETATU EGITEN
DU EPAIA, BAINA
ERABAKIAREKIN
EZ DATOR BAT**



IREKIA

Oinarritzko birsorkuntza tasa

Azken egunotako joera ona izaten ari da, 1aren azpitik jaisten hasi delako. 0,84koan zegoen asteazkenean, eta horrek esan nahi du birusaren hedapena kontrolpean dagoela. 1etik gora igoz gero, kutsatu bakoitzak pertsona bat baino gehiago kutsa dezakeela ondorioztatzen dute adituek.

Pandemiaren garapena, astez asteko alderaketa eginez

ANDOAIN

- **Otsailak 3-Otsailak 9:** 26 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 373,63.
- **Urtarrilak 27-Otsailak 2:** 30 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 680,54.
- **Urtarrilak 20-Urtarrilak 26:** 72 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 887,38.
- **Urtarrilak 13-Urtarrilak 19:** 61 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 834,00.
- **Urtarrilak 6-Urtarrilak 12:** 64 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 660,53.
- **Abenduak 30-Urtarrilak 5:** 35 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 413,66 (urt7).

URNIETA

- **Otsailak 3-Otsailak 9:** 8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 499,28.
- **Urtarrilak 27-Otsailak 2:** 23 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 837,49.
- **Urtarrilak 20-Urtarrilak 26:** 29 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 853,60.
- **Urtarrilak 13-Urtarrilak 19:** 16 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 467,06.
- **Urtarrilak 6-Urtarrilak 12:** 5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 177,16.
- **Abenduak 30-Urtarrilak 5:** 6 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 112,74 (urt7).



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- **Osasun Sailak zabalduetako datuak eguerdior, eskualdera ekarrita.**
- **Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.**
- **Atal bereziak: BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN**

www.aiurri.eus



Urnieta
udala



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

K2-a, mendi hiltzailea?

Helduleku anitz izan ditu K2 mendiko neguko lehen igoera gauzatzeko erronkak.

Himalaismoa esaten zaio, baina K2 Karakorum mendi gunean dago, Pakistanen, beste lau zortzi milakorekin batera. Geografikoki Nepaldik 2.000 kilometrorra.

Nepalдарrek lortu zuten, aste batzuk atzera, Himalaismoaren azken mamua menderatzea: 8.611 metroko menditzarra, piramide perfektua belaunikaraztea. Oxigenoaren erabilera izan zen polemika gai. Erabili ote zuten, ez...

Orduan Sergi Mingote kataluniarra hil zen, Igo kanpalekutik behera zetorrela jausita. Eskarmentu handiko mendizalea. Pasa den asteburuan Juan Pablo Mohr, John Snorri eta Ali Sadpara galdu dira, gailurrerako ahalegin betean zirela. Non, nola, noiz... ezin jakin, eta ezta jakingo ere. Lainoek Chogori erraldoia estaltzen zutela, ezinezkoa da haiei zer gertatu zaien jakitea. Non dauden, nola izan ziren haien azken segundoak.

Drama. Heriotza oro bezala. Gizakiok ez baitakigu heriotzari aurre egiten. Ezta jakingo ere. Iñaki Otxoa de Olza zenak esan zuen, bere kontroletik ihes egiten dion zerbait dela heriotza, une bat, agur, eta kito. Ez dago bueltarik. Joan dena ez da itzuliko, eta hori asumitzen ez dakigu. K2n, 8.000 metrotik gora, eta neguan, heriotza arriskua oso handia da. Ziur aski munduko beste txoko guztietan baino handiagoa, baina gizakia joan egiten da, mendi hura konkistatzera, non eta negu betean, non tenperatura -65 edo -70 gradura jaisten den, eta haizek dantzan

eramaten zaituen elur maldetan behera.

Eta zergatik joaten da? Lagun on batek idatzi zidan twitterren: "Motel, nik ez zioat ba, plazerik ikusten hor gora baldintza horietan ibiltzeari". Esan nion, plazera erronkak sortzen duela, ezinezkoa dena konkistatzeko grina hori. Gizaldiz gizaldi hala izan da, eta hala izango da beti. Gizakiak erronka ezinezkoak bilatuko ditu, harri azpian, eta horietako bat zen, eta da, K2 neguan igotzea. Albo kalteak latzak izatearen arriskupean. Jendea hil egiten da han, eta mendizale komunitatea atsekabetuta mintzatu da azken hiru heriotzekin.

Une latz edo gogor hauetan ere, mantra berbera errepikatzen da han eta hemen: "Baina ze demonstrera joaten dira hara, hiltzera? Galdera beste bat behar luke izan: "Eta zergatik ez dira joango, bada?" Akaso hobe al da gure konfort gunean geratzea urtetan, eta bizitza plano bat egitea, pizgarri berezirik gabe? Mendizale haiek hara joan nahi zuten, K2 igotzeko, eta han geratu dira, zoritxarrez. Errespetuz hartu behar da haien hautua, bere egunak bertan buka zitezkeela jakitun baziren ere.

Orain K2 mendi hiltzailea eta beste irakurriko dugu han eta hemen, mendiak erruren bat balu bezala. Mendiak ez dira hiltzaileak. Mendiak hor zeuden gu mundu honetara etorri baino lehen, eta hor egongo dira luze gu joan ondoren ere.

Errespetua mendiei.

Errespetua mendizaleen erabakiari.

Errespetua heriotza etorri zaienei.



IRITZIA

FELIPE IZAGIRRE URNIETA

Eutanasia iritsi da

"Gogora dezagun hiltzeko eskubideak ez duela bizitzeko eskubidea mehatxupean jartzen. Bizitzaren aberastasunak estimatzeko ez dago hoberik heriotzaren aipua baino" (Vargas Llosa)

Urte asko iragan dira Salvador Panikerrek DHE Duintasunez Hiltzeko Eskubidea mahai gainean jarri zuenetik, esan nahi baita Eutanasiaren legea legeztatze aldarria egin zuenetik. DHD elkarteak bere lekukoa hartu zuen, eta urtetan errebindikazio hori aldarrikatzen jarraitu du. Askotan eta era askotara ahalegindu da elkarteak Espainiako Kongresuak errebindikazio hori berea egin eta legeztatzen saia dadin. Batzuetan arrazoi batzuk, bestetan beste batzuk, ezin izan da aurrera atera nahiz eta herritarren gehiengoa Eutanasia legeztatzearen alde egon.

Atzerapen honek, halaber, pertsona askoren bizitza eraman du, eta askotan, ez modu egoki eta duinean. Zerrenda luzea litzateke denak aipatzea baina asko izan dira azken urte hauetan. Kasu asko ekarri izan ditut nik neuk Aiurrira; horietako askok inoren laguntza gabe lortu dutenak, eta beste askok laguntza behar izan dutenak oraindik eutanasia eta lagundutako suizidioa legez kanpo zeudenean. Denok dugu gogoan Ramon Sampedro. Istripu bat medio, tetraplegiko geratu zen. Edozertarako laguntza behar zuen. Ahaleginak eta bost egin zituen lege aldetik, bere buruaz beste egiteko ez baitzen pertsona sentitzen. Garai hartan, eta eutanasia eta suizidio lagundua oraindik heldu gabe zeudenean, eztabaida ugari izaten zen komunikabideetan eta horrelako eztabaida batean OPUSeko apaiz gazte batekin eztabaidan aritzea suertatu zitzaidan. Eutanasia hitzari,

berez heriotz ona, 'akatu' hitzarekin alderatzen zuen. Bere argudioak ez zeukan nondik heldu. Sampedro 1998ko urtarrilaren 12an hil zen, beste pertsona baten laguntzaz. Nik dakidala, nahiz eta eutanasia eta suizidio lagundua legeztatu gabe egon, laguntzailea ez zuten legearen aldetik zigortu. Kasuistika anitz ere izan da eutanasia eta suizidio lagunduen inguruan. Nire irudiko, Judeo Kristau moralak zerikusi nabarmena izan du. Honen arabera, ez gara gure bizitzaren jabe, Jaungoikoarena baizik da. Eta ezin dezakegu guk geuk erabaki noiz eta nola hil nahi dugun. Baina moral hori gainbehera joan den heinean, herriaren kontzientzia aldatuz joan da, eta gaurko inkesten arabera, populazioaren zati handi batek heriotzari duintasuna eman nahi dio. Politika alorreko gehiengoak jakin du herritarren nahia irakurtzen, eta gehiengo batez lortu da legeztatzea. PP eta VOX eskuindar alderdiak izan dira uko egin diotenak. Sorpresarik ez, noski.

Legea luze-zabala da, eta lege guztiak bezala interpretazio askotara eramaten gaituena. Zirrikitu askotarikoa da. Dena den, garaipen bat dela ezin ukatu eta Espainiako Estatuak urrats garrantzitsua eman duela ezin uka. Hori aitortu dute eutanasia legeztatzearen aldeko Kongresuko alderdi guztiek. Lege Organikoa da, beraz, estatu osoan aplikatzekoa. Euskal Herriko alderdiei dagokionean, zera esan dute: EAJ-PNVko Joseba Agirretxeak zainketa aringarriak defendatu zituen, baina argi utzi eutanasia ordezkatzaren dutela sinestazaztea "falacia" hutsa dela, sufrimendua puntu bateraino soilik arindu baitezake. Eta arrazoi du: eutanasia ez doa zainketa aringarrien aurka. Inondik ere ez. Osagarriak izan

daitezke. Horrela, zenbaiten teoria, elizarena eta klinika erlijiosoetan lan egiten duten osagile askorena bertan behera geratzen da. EH Bilduren aldetik, Iñaki Ruiz de Pinedok nabarmendu zuen "azken hoge urteotan hamasei saiakera egin ostean" koalizio suberantistak eutanasia arautzen hastea ospatzen duela.

Nire uste apalean, ospatzekoa da eman den aurrerapausoa. Nola ez!! Ez dakit, ordea, noraino errespetatzen duen norbanakoaren erabakitze eskubidea, gaixotasunetik haratago. Horregatik, lege guztiak bezala, gabeziak ere hor daude. Alde batetik ikusten dut, nahiz eta protokoloa luzea eta korapilatsua den, gaixotasun degeneratiboa duten askorentzat eta hil nahi dutenentzat, eta orain arte lege artean zirrikituren bat aurkitu ez dutenentzat, kontuan hartuta sufrikario gogorra dutela gainean, horientzat legea onuragarria izan daitekeela. Etxean edo erietxean, osagileren laguntzarekin, duintasunez hil daitezke. Denok ezagutzen ditugu hainbat eta hainbat kasu. Baina, jo dezagun urteetan osasuntsu bizi izan dela baina azken momentuko gaixotasuna medio, hil nahi duela ez duelako nahi bizitza luzatu. Horrek izanen luke lekurik legean?

Dena den, lehen aipatu kolektibo horrek itxaropentsu hartu du legea. Zorionak! Eta azkenerraino iristeko zortea dutenentzat eman diezaietela sedazio txukun bat bizitza alferrik gabe luzatuz. Finean, kasuistikatik haratago, sedazioa ere eutanasia modu bat baita. Jakina, hau guztia norberak aukeratzeko duen eskubidea errespetatuz. Inor behartu gabe, noski.

Ongi etorria, beraz, Eutanasiaren (ondo hiltzeko) legea!!!

• Iritzia, Postontzia
• "Zein da zure iritzia?"

www.aiurri.eus



IRITZIA

MAIXABEL LASA LEGORRETA

Biktimak, diferentziari errespetua

Nire jardunean beti funtsezkotzat jo ditudan zenbait jarraibide izan ziren nagusi Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren buru izan nintzen hamaika urtetan.

Horien artean pixuzkoena terrorismoaren biktima ororenganako errespetu osoa izan zen, bai izaerarekiko, bai pentsakerarekiko, bai sentitzeko moduarekiko. Izan ere, ulertzen dut nork bere modura bizi duela biktima izaera. Ez dut inoiz uste izan —ez eta orain ere—, moralki, biktima hobeak edo okerragoak daudenik. Guztiak dira berdinak, eta guztiei zor zaie errespetua eta begirunea. Saiatu nintzen, beraz, moralki “gehiagotzat” har zitezkeen ereduetatik ihes egiten.

Era berean, oso argi izan dut beti elkartasuna eta beren eskubideenganako errespetua merezi badute ere, biktimek ezin dutela gainontzekoek baino legimitate gehiago eduki politikan iritzia emateko orduan. Hain zuzen ere, beti defendatu izan dut botere publikoek interes orokorra zaindu behar dutela, eta ez interes partikularra, nahiz eta oso ulergarria izan giza ikuspegitik.

Trukean, biktima naizen aldetik, errespetua eskatu dut. Errespetua nire pentsamoldearenganako, baita nire jarduteko moduarenganako ere; ez gutxiago, ez gehiago, errespetu duina baizik. Eta horrelaxe gertatu zen, esaterako, nire senarra erail zuten ETA komandoko bi kiderekin hitzartzean. “Programa restauratibo”-etan edo leheneteratzialeetan parte hartzeak bermatu zidan aukera hori; egindako ekintzengatik, beren damu hitzak, entzun nituen, minberak bezain zintzoak.

Sekula ez zen nire nahia izan ni jarraitu beharreko jokabide eredu gisa ikustea jendeak. Nire babesa erakutsi nien

biktima guztiei, baita nirea bezalako esperientzia partekatu nahi ez izateaz gain, hori ulertzen ez zuten kideei ere. Hori bai, errespetua eskatu nuen programan askatasunez parte hartzea erabaki genuen kideon artean.

Ez dago biktima izateko modu kanonikorik, ez eta biktima gisa pentsatzeko modu zehatzik ere. Jakina, terrorismoaren biktimen pentsamendu politikoan ere ez dago ahots-berdintasunik. ETAk ezarritako izuaren basakeria jasan dute eskuineko zein ezkerreko hainbat kidek, baita nazionalistek ere.

Horrenbestez, zentzuzkoa al da terrorismoaren biktimek, kolektibo gisa, ahots bakarrez jardungo dutenaren ustea izatea? Noski ezetz. Eta hala bada, zergatik kostatzen da hainbeste aniztasun hori onartzea? Zergatik dago biktimen ahotsaren monopolioa behin eta berriz bere gain hartu nahi duenik? Zergatik erabiltzen da “biktimen ahotsa”-ren itxurakeria hori politikaren gaineko iritziak plazaratzeko, espetxe-politikaz edota alderdi politikoen arteko itunez ari garenean?

“Terrorismoaren biktimak” gozoki goxoa izan gara urteetan alderdi politikoentzat, zeren enpatiarako gaitasuna sortzen baitu gure minaren eta sufrimenduaren bidegabekeriak. Eta batzuek ez dute amore ematen aukera politiko hori galtzeko. Aniztasuna oztopatzeko jarrerak, eskuarki, alderdi politikoaren sigla itxurako sinadura dakarte. Horregatik, ardura handiagoa du aferari amaiera emateko beharraz hausnartzean.


Horren adibide da, esaterako, Madrilgo Batzarreko diputatuak egin duena: oso modu lotsagarrian, nire familiaren sentimenduak iraindu ditu. Baieztapen maltzurak erabili ez ezik, gezurrak ere esan ditu, ez dagozkion arlo pertsonaleko hainbat kontutan.

Inork ez dezala bere burua engainatu; gizon horrek ez du ezer nire aurka, ez eta nire familiaren kontra ere. Are gehiago, iraganean harreman adeitsua izan genuen, eta ordutik hona ez da inolako eragozpenik izan.

Ez, ez dago ezer pertsonalik. Beste kontu bat da bere jarreraren zioa. Biktimak gaitzesteko borondatea dago purrustada horren atzean, beren ideikin bat egin ez, eta haien ahots politikoaren monopolioa apurtzen dugunen aurkako nahia. Ez da gertatzen den lehen aldia, nahiz eta azkena izatea espero dugun. Biktimaren ideologia erabili da —“badakigu, nazionalista da...”—, Stockholmeko sindromea, zalantzan jartzeraino, orain, sentitzen dugun mina.

Ez dut ezer pertsona horren aurka. Aitzitik, biktima den aldetik, merezitako errespetu guztia jasoko du nire aldetik; onartzen dut bere pentsamoldea, nahiz eta bera nirearekin bat ez etorri. Besterik ez genuen behar. Bere eskubidea eta askatasuna dira. Alabaina, babesten eta aldarrikatzen dut Eusko Jaurlaritzaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzan egindako ibilbidean oinarri izan dudana asmoa: biktima guztiak errespetatzea eta aintzat hartzea, eta haien aniztasuna eta pluraltasuna defendatzea. Nahikoa da. ERRESPETUA eskatzen dut.

*Oharra: Maixabel Lasa Andoainen izan da aste honetan, "Zubiak" dokumentala aurkezten. Era berean, egun hauetan zeresana eman du bere gutunak, Madrideko Asanbladako PPko ordezkari baten Twitterreko mezu bati erantzuten diona.



IRITZIA

MAIDER LAINEZ ANDOAIN



Gaur, inoiz baino gehiago, gure oroimenean zaude

Gaur da lehen aldia, 2003an hil zintuztenetik, Andoaingo zure lankide sozialistok lore eskaintza hau nahiko genukeen normaltasunez egiterik izango ez duguna. Covid-19a dela eta, erantzukizunez jokatu nahi izan dugu eta, horregatik, ez zaigu egokia iruditu herritarrei eta komunikabideei ekitaldi honetan parte hartzeko deia egitea.

Baina berdin gogoratzen zaitugu, Joseba. Agian, aurtengoa beste edozein urte baino gogorragoa izango da, ezin izango baitugu besarkada hori eman, hainbeste berotzen duen eta hainbeste batzen gaituen musu hori. Nahiz eta pandemiak ez digun fisikoki hori egiten utziko, hitz hauen bidez, besarkadarik eta musurik handiena bidali nahi diet zure familia osoari eta gaur aurkitu ohi ditugun lankide eta lagunei.

Denok mingostasunez gogoratzen dugu gaur duela 18 urte ETako hiltzaile batzuek hiru tiro bizkarrean emanaz bizia kentzea erabaki zutela, ezberdin pentsatzeagatik eta askatasuna defendatzeagatik.

Eta urtetik urtera zailagoa egiten zaigu hainbeste indarkeriaren zentzugabekeria ulertzea, baita hilketak eta beste hainbestek ekarri duten sufrimenduaren zergatia ere. Terrorismoak ez duelako inoiz

izan ez zentzurik ez justifikaziorik. Eta hori argi eta garbi ezagutu beharko genuke, eta beldurrik gabe esan.

Gaur, inoiz baino gehiago, zure oroimena aldarrikatu behar dugu, Joseba eta hain modu bidegabea kendu zizkiguten beste askoren oroimena. Elkarrekin memoria kolektibo eta inklusiboa eraiki behar dugu, benetan gertatu dena oinarri hartuta. Eta hori ezin izango dugu egin, batzuk gertatu dena zuritzen edo gauzei beren izenez ez deitzen saiatzan badira.

Hain zuzen ere, memoria kolektibo eta inklusibo hori izan behar da gure bizikidetzara eraikitzeko oinarria. Etorkizunari begiratu behar diogu, baina memoriatik, egiatik, justiziatik eta konponketatik. Etorkizuneko belaunaldiei begira, orrialdea pasa behar dugu, bai, baina gertatu dena irakurritz. Zuengandik, aurrera egingo dugu beti, baina gertatutakoa gogoratzuz, memoria landuz Joseba, gaur inoiz baino argiago geratzen da distantziak eta denborak ez dutela ahazten, hemen jarraitzen duzulako gurekin, gure bihotzean eta oroimenean. Eta, zuregatik, elkarrekin garrasi egiten dugu: Askatasunaren alde!



Ibai Lasarte, Ibila87 izena darabilen Andoaingo streamerra. AIURRI

"Euskarak Twitchen tokia izan dezan lanean ari gara"

IBAI LASARTE STREAMERRA

Interneten puntako joera da unean uneko emankizuna eskaintzea, edo haren jarraitzaile izatea. 'Streaming' ingelesezko adieratik dator *streamerra*, edo esataria

Mikel Arberas ANDOAIN

Lehenik eta behin, zer da streamer izatea?

Azalpenak askotarikoak izan daitezke, baina laburki, *streaminga* Internet bidez egiten den bideoaren eta soinuaren nola-baiteko zuzeneko da. Zein da berezitasuna? *Streamerrak* egiten duena zuzenean ikusi eta entzun daiteke, eta nahi den edukari buruzko "saioak" egin daitezke; bideo-jokoetatik hasi eta telebista saioei buruz hitz egiteraino. Ezin da aurretiaz

grabatu, beraz, zuzenekoetan sortzen den hartu-emanan handiagoa da. Gaur egun zuzenekoak egiteko plataforma ezagunena *Twitch* dela esango nuke. Izan ere, baliabide asko ditu, eta ikusleekin eta entzuleekin kontaktua mantentzeko aukerak eskaintzen dira.

Zer behar da horren beste fama lortu duten streamerra bilakatzeko? Ezinbestekoa da ikusleak eta entzuleak harrapatzea, horretarako, eduki interesgarria egin behar da. Zeure tematika edota

gaiak jorratzeko modua aspergarria izanez gero, jarraitzaile gutxiago izango dituzu. Ez hori bakarrik, ikusleekin hartu emana egotea ezinbestekoa da; elkar komunikazioa sortu behar da, eurak zuzenekoaren zati direla sentitu behar dute, interakzioa sortu behar da streamer-ikuslearen artean.

Materialari dagokionez, gomendagarria da audioa eta irudia txukuna izatea. Egia da, hasiberriek ez dutela izugarritzko materiala, baina etxeko tresnekin

zuzeneko polita egin daiteke. Hasiera batean, behintzat, ez da beharrezkoa telebistan ikusten diren streamerren mikrofonoak, kamerak eta ordenagailuak edukitzea. Edozein has daiteke zuzenekoak egiten.

Egun, oso famatua bilakatzen ari da munduan Twitch plataforma. Zer dela eta?

Gaur egun, telebista tradizionala geroz eta gutxiago kontsumitzen da, batez ere, gazteengandik eta nerabeengandik. Gehiengo Internet bitartez ikusten da, esaterako, Netflixen, HBOen, Youtubeen edota, azken urtean, Twitch plataforman.

Twitch oso famatua bilakatu da bat-batean ikusle asko bereganatu dituelako. Hein handi batean, Youtuber gehienak plataforma honetara igaro zirelako. Gainera, gazteei asko gustatzen zaie gustuko duten pertsonaia famatuekin hitz egiteko aukera hori edukitzea.

Gauzak horrela, etorkizun laburrean telebista tradizionalak maldan behe-rako norabidea hartuko du?

Nire ustez, gaur egun telebista gainbeheran dago. Ez dugu etorkizun hipotetiko batetaz hitz egin behar telebista geroz eta gutxiago kontsumitzen dela ikusteko. Plataforma digitalek telebistari ikusle asko kendu dizkiete.

Nolako edukiak helarazten dira Twitchen?

Esango nuke, zuzenekoaren ehuneko handi bat bideojokoei buruzko dela. Dena den, edozer eduki streameatu dezakezu; esaterako, musikari, telebista saioei eta marrazketari buruz, beste askoren artean. Naiz irratia, "Bigarren kafea" izeneko saioa igortzen du Twitch bitartez, beste adibide bat jartzearen.

Gomendiorik Twitchen zuzenekoak egiten hasi nahi duenarentzat?

Ez naiz esperientzia luzeko streamerra, zeren eta euskal komunitatea orain dela gutxi sortu baitzen, nahiz eta jada zuzeneko ugari egin ditudan. Baina hasiberri bati esango nioke lehendabizi kamerak eta audioak ondo funtzionatzen duen ziurtatzeko. Horrez gain, plataformara eduki interesgarria eramatea ezinbestekoa da. Gainera, ikusle gehiago lortzeko garrantzitsua da ezagutzera eramatea, horretarako, sare sozialak erabiltzea gomendatzen dut. Existitzen den euskal komunitate bakarra Twitterren dagoela esango nuke.

Askok galdetzen dute zergatik Ibai Llanos eta bestelako streamerrek horrenbeste diru irabazten dute. Nolako da dirua irabaztearen prozesua?

Twitchen dirua irabazteko, lehenik eta behin baldintza batzuk bete behar dira; hau da, batz besteko 3 ikusle, eta 50 jarraitzaile baino gehiago eta hilabetero gutxienez 50 orduz streameatzea. Horiek bete ostean, harpidetzak lortu eta dohaintzak jaso ditzazkezu. Harpidetza zeure kanalarri laguntzeko diru kantitatea da. Horrez gain, dirua iragarkien bitartez irabazi daiteke. Adibidez, Ibai Llanos famatuak diru izugarria lortzen du, jarraitzaile ugari dituelako eta iragarkiak jartzeagatik asko ordaintzen diotelako. Berdina beste streamer famatuekin.

Bestalde, mundu hori oso erdalduna izan ohi da, baina 3000 Twitz izeneko ekimen bat martxan jarri zen duela gutxi.

Azaroan eta abenduan Iruñe Astiz (Arkkuso) eta Ainhua Azkue (Nebukai) streamerrak batu ziren Twitch plataformari euskarazko etiketa jartzea eskatzeko. Gauzak horrela, 3.000 Twitz ekimena sortu zen. Kanpaina honekin zera lortu nahi da, hiru mila firma euskarak bere lekua edukitzeko zuzenekoaren plataforman. Jada 4.255 bozka jaso dira, baina Twitchen esku dago aukera hori martxan jartzea. Esaterako, katalanek 2.905 bozkekin lortu zuten beren hizkuntza txertatzea. Ez dakit zer gehiago nahi duten. Askok galdetuko dute, zertarako balio du euskarazko etiketak? Bada, bilaketetan euskarak eta euskal streamerrek presentzia handiagoa edukitzeko. Bilaketak egin daitezke hizkuntzaren arabera. Oso aberasgarria da euskal komunitatearentzat, baita euskararentzat ere.

Arestian esan bezala, bi streamerrek bultzatu zuten arren euskaratze prozesua, Game Erauntsia bideojokoen euskal komunitatearen sostengua eduki zuten. Nolabait esateko, euskal *gamerrek* mugitzen diren gunea da.

Zein streamereuskaldun nabarmenduko zenituzke?

Musikaren arloan, *Pubguitar*. Solasaldiak egiten dituztenen artean, hasiberria den *Aiora probatxoa* eta *Arkkuso*. Bideojoko klasikoaren arloan *Zitalko* aipatuko nuke. Baina euskal streamer ugari daude, zeuen kabuz bilatu ditzakezue. Merezi du.



Aiurrik irismen handia lortu du sare sozial ezberdinetan. AIURRI

Tokian tokiko albisteak sare sozial ezberdinetan

Ezin uka daiteke sare sozialek hartu duten garrantzia azken urteetan. Informatzeko ez ezik, pertsonen arteko elkarregina elikatzen duten tresnak dira. Aiurrik ere apustua egin du informazioa helarazteko euskarri horien alde, alegia, astekaria alde batera utzi gabe

Mikel Arberas / Alba Jauregi ANDOAIN
Aiurrik parte hartze aktiboa du sare sozial ezberdinetan, adin segmetu askora irisiz horrela.

Instagram

Argazkiak oinarri, eskualdeko gertaeren berri ematen du. Hala, nabarmenki egin du gora Aiurriren Instagrameko kontuan erabiltzaileengan izan duen eraginak. Azken hilabeteko datuei erreparatuz gero, 2.587 pertsonak jaso dute Aiurriren edukiren bat edo beste aipatutako

sare sozialaren bidez, kontuan hartuta 1.672 jarraitzaile dituela @aiurriklik kontuak. Gainera, hilabetetik hilabetera, gora egin du joera horrek: oraingoan, esaterako, pasa den hilabetearen baino % 7,7 gehiagori iritsi zaio hedabidearen edukia. Hori dela eta, ia 80.000 aldiz ikusi dira Aiurrik Instagram bidez azken lau astetan egindako argitalpenak.

Bestalde, orotara, 1.759 erabiltzailek bisitatu dute hedabidearen Instagram profila, hots, joan

den hilabetearen baino % 27,8 gehiagok. Horrez gain, 97 kide sartu dira hedabidearen web-orrialde nagusira edukia bere osotasunean irakurtzeko, hau da, positiboki egin du gora joerak, hain zuzen, % 177,1 igo da, iragan hilarekin alderatuta.

Facebook

Oraindik ere Facebook sare soziala da Aiurriren albisteak zabaltzeko tresna nagusiena. Datuek hala diote. Jada, 3.029 erabiltzailek eman diote "gus-

tuko dut" Aiurriren profilari, eta 3.238k jarraitzen dute sare soziala. Datuak harrigarriak dira, zeren eta pandemia aurretik ia 400 jarraitzaile gutxiago baigenituen.

Jarraitzaileek tresna interesgarritzat dute Facebook; albiste guztiak bertan partekatzen ditugu eta, horrez gain, hedabidearekin hartu-eman sustatzeko baliagarria izan daiteke.

Azken 28 egunetako datuei erreparatuz gero, gorunzko joeran jarraitzen dute. Esaterako, Aiurriren orrira pasa den hilean biano % 8 herritar gehiago sartu dira, guztira 1.009 pertsona.

Datuak oso esanguratsuak dira, izan ere, argitalpenekin egindako interakzioa handitzen doa egunez egun. Jada, erdal-dunek ere Aiurri euskarazko hedabidea kontsumitzen aritu dira; hizkuntzaz haratago ohartu baitira tokian tokiko informazio fidagarria eta interesgarria zabaltzen duela Aiurrik. Euskarazko eta erdarazko iruzkinak jaso ohi ditugu Facebook-eko jarioan.

Twitter

Twitterrek eduki du igoera handiena. Pandemia garaitik hona, sare sozial honen bat-batekotasuna erakargarri bilakatu da eta persona askok unean-uneko albisteez informatzeko erabiltzen dute. Ez hori bakarrik. #Bertso-Vid19 ekimenarekin, 200 jarraitzailetik gora lortu zituen Aiurrik; gainera, bertso ekimenaren traola euskal tendentzia bilakatu zen. Emaizta izugarriak lortu ditu Aiurrik. Euskal komunitate nagusiena Twitterren kokatua dago.

Datuei dagokionez, hilabete batean 180.000 ikuste lortu dira Twitterreko albiste jarioan. Pandemia garaian, bertso ekimena martxan zegoenean, milioi bat ikusteetara ere ailegatu zen. Tokiko hedabide batentzat, datu

benetan esanguratsuak dira. Horrez gain, Aiurriko profilera sartu diren kopurua handitzen doa, hilabete honetan esaterako, ia %30 egin du gora.

Telegram

Sare sozial edo komunikaziorako tresna berritzailea izan da Telegram. Mezuak bidaltzeko APPa izateaz gain, albisteak eta edukiak jasotzeko ere balio dezake. Beraz, Aiurrik Aiztondoko, Urnietako eta Andoaingo kanal berezituak sortu zituen pandemia garaian. Hasiera geldoa eduki zuen, eta hainbat hilabetez soilik 50 jarraitzaileetara ailegatu zen. Hala ere, azken bi hilabeteetan, jarraitzaile ugari eskuratu ditugu. Andoaingo kanalak 115 jarraitzaile ditu, Aiztondoko 26 eta Urnietak 25. Geroztik gehiago dira Aiurriko edukietara iristeko hautua hartu dutenak. Eta joera hori gorunzkoa da.

Egunean behin

Jende gutxiri egingo zaio ezezaguna joko: egunero-egunero 10 galderari erantzun behar die parte-hartzaileak, geografiatik hasi eta matematikaraino. Zenbat eta azkarrago egin, zenbat eta gehiago asmatu, orduan eta puntuazio hoberekin iristen da erabiltzailea aste bukaerara. Hala, Aiurrik ere bere taldea sortu zuen joko honetan, euskal herritar askoren leiharen biltzaile izateko. Dagoeneko 580 kide ditu eskualdeko eta inguruko jendeari zuzenduta sortutako 'Aiurri' izeneko taldeak. Gainera, kide kopuruak nabarmenki egin du gora Aiurriren taldeko lehian tokian tokiko produktu sortak zozkatzen hasi bezain laster.

Aste honetan, esaterako, Mizpiradi sagardo-kaxa zozkatu da. Eta hurrengo asteko irabazleak Zabala sagardotegiko kaxa jasoko du.

Oinarrizko hiztegia

ADIERA BERRIAK APLIKAZIO ETA AUKERA BERRIEN ETORRERAREKIN HIZKERA BERRIA SORTZEN ARI DA

• **Streaming:** Internet bitartez egiten den bideoaren eta soinuaren zuzeneko igorpena da. Streamer-ak (zuzenekoaren egilea) egiten duena zuzenean ikusi eta entzun daiteke. Horretarako, askotariko

plataformak baliatu daitezke, esaterako, YouTube, Instagram edota Twitch.

• **Twitch:** Zuzeneko transmisioak egitea ahalbidetzen duen plataforma bat da. Bere funtzio nagusietako bat bideo-

jokoak zuzenean emititzea da; YouTube lehiakide nagusitza du. Baina mota guztietako edukiak igorri daitezke.

• **Gamer:** Ingeles jatorriko hitza da eta bideo-joko jokalariei erreferentzia egiten

die. Egun, gazteen artean oso erabilia den terminologia da.

• **3000 Twitz:** Twitch plataforman euskarazko etiketa lortzeko sortu den ekimena da. Jendeak zuzenekoak euskaraz egitearen alde bozkatzeko, plataformak euskara ofizialki onar dezan.

• **Game Erauntsia:** Bideojokoei buruzko euskal komunitatea da.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 11

ANDOAIN Erakusketa

"Jainkozaletasuna eta erlijio errituak Andoainen".

Azken eguna: Otsailak 27. Bastero.

ESKUALDEA Lehiaketa

Inauterietako argazki lehiaketa, Aiurriren eskutik. Astekariko 15. orrialdean informazio gehiago.

Otsailak 11-13: Argazkiak bidali.

URNIETA Erakusketa

Udal egutegiko argazki-bilduma ikusgai dago Lekaioko instalakuntzatan.

Otsailean zehar. Lekaio.

URNIETA Liburu salmenta

"Urnieta, 1936-1945 Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan" liburua salgai dago.

Bertan, Elkar dendak. 10 euro.

URNIETA Lehiaketa

Antia literatur lehiaketa. Dagoeneko irekita dago lanak aurkezteko epea. Haur, gazte eta helduen mailakoa da.

Epea: Martxoak 12. Sarobe

OSTIRALA 12

ANDOAIN Kontzertua

Aldapeko Basque Latin Jazz, Imanol Iribarrenen zuzendaritzapean.

19:00, Bastero. 12 euro.

ASTELEHENA 15

ANDOAIN Antzerki-foruma

"Eta hik zer?", elkarbizitzan sakonduz.

18:30, Bastero.

OSTIRALA 19

ANDOAIN Antzerkia

"Atzerrian lurra garratz", Artedrama.

19:00, Bastero. 12 euro.

IGANDEA 21

URNIETA Bakarritzeta

Oscar Terol aktore ezagunak "¡Por comentarlo!" eskainiko du.

18:00, Sarobe. 5 euro.



Maria Urcelay eta Yogurina Borova antzezleak. AIURRI


ANDOAIN Meri, Mari eta Lari haur ikuskizuna

6 urtetik gorakoei zuzendutako ikuskizuna da. Marik ez zekien Meri haurdu zegoenik. Ezusteko ederra jaso du. Umea zer izango den galdetu dio Marik Meriri. Zergatik galdetu behar dugu neska ala mutila izango den? Ipuin eta kantuz osatutako antzezlan. Abestiak Yogurinha Borovarenak dira.

Otsailak 13, larunbata. 17:00. 4 euro.



ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

Asteburu honetan:

Taming Winter

Helduentzat.

Igandea, 14: 19:00.

Hurrengo

asteburuan:

La chica del brazalete

Helduentzat.


Larunbata, 20:

19:00.

Mina y el Mundo de los Sueños

Larunbata, 20:

16:30.



SINOPSISIA

**Taming Winter dokumentala**

Hizkuntza: Ingelesa, azpitituluak gaztelaniaz. **Iraupena:** 99 min.

Inauteriak, Europan zehar

Europako lurralde ezberdinetan inauteria nola bizi duten ikusteko aukera izango da

Basteron, asteburu honetan. Inauteri giroko ikus-entzunezkoa.



AIURRI

Egunean Behineko irabazlea

Atsegin Garcia andoaindarra da Egunean Behin denboraldi berriko lehen sariduna. Argazkian ikusten denez, Mizpiradiko sagardoa eramango du etxera. Ehunka lagun parte hartzen ari dira lehiaketa ezagunaren "Aiurri" taldean, eta astero-astero sagardo kaxa zozketatuko da parte hartzaileen artean. Aste honetako irabazleak Zabalako sagardoa eramango du etxera.

Ramon Jauregi Etxenike andoaindarra zendu da

Otsailaren 9an hil zen Buruntza auzoko Elizagarate Aundi baserrikoa, 58 urte zituela

Erredakzioa ANDOAIN

Andoainen aski ezaguna den herrikidea zendu zen, otsailaren 9an. Pilotazale amorratua zen, eta Gazteleku Pelota Eskolako guraso askorekin batera elkar-tea aurrera ateratzeko bere ale-toa jarri zuen.

Azken agurra ematekoak dira ostegun honetan, San Martin elizan arratsaldeko 18:30ean hasita.

Marijose Sunsundegirekin ezkondua zegoen Ramon Jauregi, eta bi semearen aita zen: Mikel eta Jon.

GUGAN BEGO

Ramon Jauregi Etxenike

Andoainen hil zen, 2021eko otsailaren 9an



Ezkutuko txokolateak, pintzekin hainbat ilara, alfonbra jokuak, irrifarre ugari eta mila tomate.
Maitatu zaitugu, maitatu gaituzu. Zure argia, gure gidari.
Nirekin egongo zara beti, balkoitik begira.
Beti izango naiz zure "nano".

Andoainen, 2021eko otsailaren 10ean

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro

BERTSOA

ATAL BERRIA AIURRIN

Irati Zinkunegi urnietarrak jarritako bertsoa da, atal berriko bigarrena:

Industriak kutsatzen du erreken ura

Isurketen kontrola

norena ardura

Kutsatzaile berbera

kontrolen buru da

Diruak baldintzatzen

al du kutsadura?

Zaindu behar genuke gehiago natura.

**Doinua: Jardin bat zuretzat (Xabier Lete).*

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Jon Loiarde

9 urte beteko ditu otsailaren 14an. Jarraitu orain arte bezain jator era alai izaten! Etxekoak.



ANDOAIN

Zorionak Ane

Anek 6 urte bete zituen otsailaren 16an. Zorionak eta muxu potoloak etxekoan partetik.



ANDOAIN

Zorionak Aitor

Otsailaren 18an urte bat beteko duzu. Muxu handi bat bihotz-bihotzez amona Begoña eta aitona Mikelen partetik.



URNIETA

Zorionak Peio

Otsailaren 20an hamaika urte beteko dituzu! Ondo pasa eguna etxeko guztiekin.

TELEFONO ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.
Urnieta: 943 006 680.
Larrialdiak: 943 461 111.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 13, igandea 14

Pajares: Zumea kalea, 20.
943 592 629. Andoain.

URNIETA

Larunbata 13, igandea 14

Tena: Kale Nagusia, 16.
943 543 718. Hernani.



Inauteriak etxean ospatu behar dituzu?

Etxean mozerrotu eta bidali argazkia Aiurrira:

619 163 537




Sariak:

BABEXA, HIRU eta OLLOKI
taberna-jatetxetako
menuak, etxean jateko.

• **Otsailak 11, 12, 13:**
Argazkiak bidali.

• **Otsailak 14:**
Irabazleen
berri emango
dugu.





Erakusketa hilabete osoan zehar zabalik izango da Andoaingo Bastero Kulturguneako erakusketa gela. AIURRI

Errituei buruzko erakusketa

Garai bateko ohitura zaharrei buruzko erakusketa zabalik dago Andoaingo Bastero Kulturgunean. Elizari lotutako errituak eta sinesmenak dira, Burdina taldeak han eta hemen bildu dituen osagai ezberdinekin



Burdina elkarteko kideak eta Udal ordezkariak, Karmele Otaegi Udal Artxiboko arduraduna hizketan ari zen bitartean. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN
Jainkozaletasunari eta erlijioari buruzko “Errituak Andoainen XX. mendearen hasieran” erakusketa ireki zuten Basteron, joan zen astelehenean. Hilaren 27ra bitarte zabalik egongo da, ohiko ordutegian eta egunean indarrean dauden prebentzio neurriak kontutan hartuta. Oso modu didaktiko eta bisualean, erakusketak iragan hurbileko andoaindarren sinesmen eta ohituretara bidaia egitea proposatzen digu.

Andoaingo Udal Artxiboak eta Burdina elkarteak elkarlanean atondu dute erakusketa, eta Itsaso Mendiluze arduratu da bere diseinuaz.

Erlijioaren kultuarekin erlazioz atutako makina bat objektu ikusi daitezke erakusketan; hala nola, gurutzeak, argizaiolak, otoitz liburuak eta debozionarioko liburuak, ur bedeinkatuko ontziak, Mirarietako Amaren irudia, etxe barruko makina bat apaindura, lehen jaunartzeko argazkiak, errosarioak, matraka eta karrakak, isipuak... Objektu horien esanahiaz eta erabileraz ikuslea ilustratzeko, hainbat argazki eta testu jarri dituzte. Idatzizko azalpenak Patxi Etxeberria Tolosa Merdilegi baserrian (Goiburu auzoa) jaio-tako jesuitarenak dira; idazle euskaltzaleak oso deskripzio zehatzak idatzita utzi zituen aditzera emanez XX. mendeko lehen bi hamarkadetan andoain-

darrek zein modutan bizitzen zuten erlijioa eta sinesmena. 36ko gerra hasi zenerako Asiarabiaturatu zen misiolari gisa, eta hamarkada ugari egin zituen bertan.

Erakusketa etnografikoa
Aurkezpen ekitaldian Karmele Otaegi Udal artxiboko zuzendariak azaldu zuenez “erakusketa etnografikoa da ikusteko jarri dena; ez da ezer mitifikatzeko asmoz egin, ezta iragan diren garaiekiko nostalgia transmititzeko ere. XX. mendeko erreallitate jakin bat azaldu nahi da, alegia, erlijioak nola baldintzatzuten eta arautzen zuen andoaindarren bizimodua, jaiotzetik heriotza bitarte”.

Otaegik gaineratu zuen iraganeko kontuak direla erakusketan azaltzen diren ohitura eta erritu gehienak, “baina ez pentsa hain-hain iraganekoak direnik. Horietako batzuk oraindik bizi garen belaunaldi askok ezagutu izan ditugu”.

Eskertza herrikideei
Burdina taldeak urtetan pilatu duen erlijioarekin lotutako ondare materialaren zati bat dago ikusgai Basteron. Ander Otaño elkarte kideak aurkezpen ekitaldian adierazi zuen herritarrengana jo dutela etxean dauzkaten hainbat objektu uzteko eskatuz. “Gogo onez erantzun digute, eta eskertzekoa da erakutsi duten eskuzabaltasuna”.

"ERRITU ASKO GAUR EGUNGO BELAUNALDI ASKOK EZAGUTU DITUGU"

KARMELE OTAEGI, UDAL ARTXIBOA

"GOGO ONEZ ERANTZUN DUTE HERRITARREK, ESKERTZEKO DA"

ANDER OTAÑO, BURDINA



andoaINDARRA
euskaraz